

# **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

## HARREMAN MOTAK:

Harreman pertsonala: harreman pertsonala dedikatua izango litzateke. Gure zerbitzuan gehien iraun duten bezeroei tratu berezia emango zitzaien. Hala ere, gizarteratzeko arazoak duten jendea tratu berezia jasoko du lehenbailehen gizarteratu dezan. Baita ere, udaletxeekin tratu berezia izango dugu zeren eta laguntza handia eskainiko digu.

Laguntza pertsonala: hasieran deituko duten gazte guztiek tratu berdina izango dute.

Bezeroak bertakotzeko prozesu berezi bat jarraituko dugu. Lehenik eta behin harpidetzak antolatuko ditugu jendea gure zerbitzuan apuntatzeko. Geroago, galdeketa modukoa egingo dugu nerabe bakoitzari bere hobbyak eta bestelako informazioa ezagutarazteko (galdeketa horiek pribatuak izango dira). Eta horren arabera, batez ere adinaren eta gustuko dituzten gauzen arabera taldeak antolatuko ditugu. Hala ere, gerta liteke norbaitek gizarteratzeko arazoak izan ditzala. Pertsona horiekin tratu berezi bat izango dugu eta ahalik eta gehien egingo dugu, pertsona horiek gizarteratu dezatela lehenbailehen.